

AURKEZPENA

Gaur egun, enpresen errealitate ekonomikoa eta instituzionala, dena delako jarduera garatzen den testuinguru sozialean eta kulturalean inbrikatuta dago. Enpresei etekina sortzeko ezezik, bestelako gauzak ere exijitzen zaizkie, besteak beste: erkidegoari behar bezala erantzuteko, erkidegoaren interesekin arduratzeko eta euren jardutearen ondorioak bere gain hartzeko. Edo gutxienez, hala uste omen dute enpresa munduko hainbat profesionalak eta adituk. Hainbat faktorek eragin dute enpresen erantzukizun soziala nagusitzeko, besteak beste: sentsibilizazioa nagusitu da enpresen boterearen eta inpaktu sozialaren aurrean, gizarteak gardentasuna eta kontrola eskatzen du denon ongi izateari zuzenean edo zeharka eragin dakizkiokkeen gauza guztietan eta bizitza mailaren eta kalitatearen kezka garrantzitsuago bilakatu da.

Enpresen erantzukizun soziala hartzeaz gain, ohartu dira etika nahitaezkoa dela enpresa bat gestionatzeko. Horri dagokionez, esan behar da orain arte, etika ezezaguna zela enpresa bat gestionatzeko prozesuan. Beraz, oraingo honetan etikako balio sendoak dituen antolaketa-kultura bat garatzeari ekin behar zaio, eta balio etiko horiek esparru estrategikoren oinarri bilakatu behar dira erabakiak hartzerakoan.

Nazioarteko Korporazio handietan izandako finantzazio-istiluek eta ustelkeria-arazoez ere sortarazi dute aztergai dugun kezka. Izan ere, eraso handia izan dira negozio-munduko erreputazioarentzat. Enpresa-etikako arazoez ekonomia globalari erasotzen diote, eta ondorioz, alde batera uzten dute akzionista txikien interesak, enpresetako soldatapekoengan izandako portaeraren ondorio txarra, ekonomia eta gizartea, oro har. Horregatik oso garrantzitsua da enpresetan balio etikoak sartzeari buruzko gogoeta egitea eta enpresaren jardueretikiko kontzientzia soziala garatzea.

Enpresa gestionatzeko prozesuan etika sartzea eta hedatzea, zalantzarik gabe, etorkizunaren aldeko apustua da, alegia, ezinbestekoa da epe luzera etekin ekonomikoa eta soziala lortu ahal izateko. Enpresetako etika, etika aplikatua denez, hain beharrezkoa den jokaera arautzeko esparrua ezartzeaz arduratu behar da, enpresaren jardueren eta erabakien justizia baloratu ahal izateko, esparru juridikoa alde batera utzita. Nahiz eta ale honetan adierazi dugun bezala, etika enpresa

gestionatzeko prozesuan aplikatzea oso lan gogorra eta konplexua izan. Lehenik eta behin, argitu behar dira etika kontzeptuaren nondik norakoak, zeintzuk diren erabili beharreko erreferentzia-balioak, eta zein den enpresaren etikako oinarritzko edukia. Horregatik, gure aldizkariko ale honek hainbeste gaietara buruz dihardu.

Maite Ansak idatzitako artikulua honek etika ekonomikoaren gaia sakonki aztertzen du, hau da, etika eta ekonomiaren arteko harremanen esparru zabala, eta kapitalismo-etikari buruzko gogoetak, pentsaera ekonomikoaren eskolako ikuspuntu desberdinetik. Azterketa hau oso iradokitzailea da, eta horretaz gain, enpresaren etika murgiltzen den esparru ekonomiko orokorra hobetu ulertzera laguntzen du.

Angel Toñaren gogoetek azpimarratzen dute adituen (bai filosofoak eta bai enpresaburuak) arteko ustezko adostasun horren atzetik ezkututzen dena. Legez-kotzat jotzen du etikako izapideak enpresaren jokaeran aplikatzea eta gogor defendatzen du enpresaren etika negozioen munduko estrategien, kulturen eta jardueren muina osa dezakeela eta osatu beha duela. Egileak esaten duen bezala, denak bat etortzen omen dira etikako izapideen garrantziarekin, negozioen munduan, baina desadostasun hori desagertzen da eragindako subjektuentzat sortutako jokaeren aplikazioa zehazten dugunean.

Arantxa Echanizek esperientzia handia du irakaskuntzan, eta hura abiapuntu hartuta, unibertsitatetako ikasleen (gure gizartearen etorkizuneko langileak) trebakuntza deontologikoaren eta etikoaren garrantziari eta aukerari buruzko gogoeta egiten du. Laguntza honen egilearen ustez ondorioa argi dago: profesional onen trebakuntzak (beharrezko ezagutza teknikoekin) ez ditu zuzenean profesional «zuzenak» trebatzen. Horregatik, oso garrantzitsua da enpresaren etika irakastea. Baina berriro aipatu behar dugu lan hori ez dela erraza, izan ere Echaniz irakasleak dioen bezala, lanbidearen etikarekin topo egiteko erronkari egin behar diogu aurre, etika hori, pertsona ororen etika bezala, saihestu ezineko ikasgaia baita. Profesional zuzenak izatera iristeko, nahitaezkoa da lanbidearen azken zentzu soziala sakon aztertzea eta bakoitzak bere buruari galdetzea zertan datzan profesional ona izatea eta zertan datzan profesional «zuzena» izatea.

Bestalde, Catherine Sauviat-ek eramaten gaitu enpresaren eredu ekonomikoan izandako aldaketetara. Eredu berri hori finantzen botere berriaren inguruan eratzen da. Egun, burtsa-kotizazioen balorazioan oinarritutako kapital propioen errentagarritasuna hobetu nahi da. Horren ondorioz, fusioen eta erosketen bidea hazi da eta zuzendariak inbertitzeko funtsezko inguru bilakatu da. Horretaz gain, kontuak manipulatzeko joera sortu da elkarrean balantzeak arintzeko eta merkaturak espero dituzten etekinak sortzeko. Historian izandako bi porrot garrantzitsuenek (Enron eta WorldCom) ezin hobeto adierazten dute burtsen kotizazioetan bakarrik oinarritzen den enpresa-gestioa.

Ildo horretan, Marcela Espinosak nabarmentzen du erantzukizun sozialeko exijentziek erabat eragiten dietela kotizatutako enpresei. Gaur egun, gizarteak eraginkortasuna, arintasuna, erantzukizuna eta gardentasuna eskatzen du enpresa horiek gobernatzerakoan. Gizartearen eskaintza hau hazi da akzionisten kopurua eta zeregina nagusitu direlako, gizartea eta ekonomia orokortu direlako eta finantzen merkatuak nazioarteko bilakatu direlako. Horregatik, enpresa-etikaren adierazpen nagusienetariko bat da egoera ekonomikoa eta finantzarioari buruzko eta enpresaren datuei buruzko benetakoa, kalitatezko eta informazio nahikoa banatzea. Hala ere, exijentzia hori ez da beti betetzen. Bai kontabilitateari buruzko informazio manipulatu, faltsutu edo ezkutatzearen ondorioz, eta bai kontabilitateko arauak berezkoa ez duten beste modu batean erabiltzearen ondorioz, erabiltzaileek konfiantza galtzen dute eta horrenbestez, zin dituzte erabaki egokiak hartu.

Marisa Méndez-ek gogoeta egiten du enpresaren etika berdintasun politiken esparruan sartzeari buruz, eta azterketa bat egiten du, azken urtetan, bai akzio positiboetan eta bai kontziliazio-politiketan eta familiei laguntzeko politiketan izandako bilakaerari buruz.. Egile honen ustez, Espainiako enpresek oso modu eskasean eta orokortuan erantzun diete aipatutako esparruetako premiei. Nahiz eta jokabide-kodeak, erantzukizun sozialeko dokumentuak eta etikan oinarritutako jokaeraren aldeko enpresen batzordeak ugaritu, oraindik hainbat alderdi ez da kontuan hartzen, besteak beste: oraindik oso nabaria den emakumeen aurkako diskriminazioa eta gaur egungo langile asko pairatu behar dituzten lan-bizitza eta familia uztartzeko zailtasunak.

Azkenik, José Luis Retolaza eta Juan San Emeterioren laguntzak bukaera ematen dio ale honi. Horiek, gure inguruko etika-bankuari buruz hitz egingo digute. Europako eta Espainiako erreferente nagusienak aztertu ondoren, sakon aztertuko dute, filosofia etikoan eta solidarioan oinarritutako jarduera batek EAEn eduki dezakeen eskaintza potentziala, eta zein izango litzatekeen Autonomia Erkidego honetan, etika-banku baten larrialdiari lagunduko liokeen marketing-planteamendua.

MIKEL DE LA FUENTE LAVÍN
Lan-Harremanak-en zuzendaria
Lan-Harremanak U.E.ren Zuzendaria
U.P.V./EHU